

I+GRAKO ETA BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKORAKO ZERGA-PIZGARRIEI BURUZKO IKASTARO PRAKTIKOA

EMAN IZENA



EGUNA ETA ORDUTEGIA	2026eko ekainak 17, asteazkena. 9:00etatik 13:30etara.
FORMATUA	Aurrez aurrekoa.
LEKUA	Innobasque, Berrikuntzaren Euskal Agentzia. Laida Bidea 203, Zamudio, Bizkaia. Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkea.
IRAUPENA	4,5 ordu.
PLAZAK	30.
NORENTZAT	Innobasque, Berrikuntzaren Euskal Agentziako bazkide diren eta I+G+b, berrikuntza teknologiko edo aholkularitza-lanak egiten dituzten erakundeentzat soilik: - I+G+b-rako kenkari fiskalen arloko azken berrikuntzei eta horiei lotutako finantzaketa-aukerei buruzko jakin-nahia dutenentzat. - Kenkari horiek haren enpresa motari aplikagarriak zaizkion eta, hala badagokio, egin beharreko izapideak ezagutzeko beharra dutenentzat. <i>*Gehienez bi pertsona erakunde bakoitzeko.</i>

IKASKUNTZA-HELBUURAK

- Zerga-araudian kenkari fiskalerako eskubidea sor dezaketen I+G+b arloko jarduera berriak ezagutzea.
- Pizgarri fiskal horren garrantzia ikuspegi kuantitatibotik ulertzea, I+G+b arloko jarduera-tipologia bakoitzari egokitutako GZren likidazio-kasu praktikoak azalduz.
- Pizgarria aplikatzeko bete behar diren izapide formalen eskema argia eta sinplea izatea.
- Aipatutako pizgarriaren aplikazio praktikoari buruz eztabaidatzea, zalantzak partekatzea eta planteatzen diren gaiak konpontzen saiatzea.

PRESTAKUNTZAREN EDUKIA

- Kenkari fiskalerako eskubidea sortzen duten I+G eta berrikuntza teknologikoko kasuak aztertzea.
- Kenkari fiskalak eta horiek aplikatzeko baldintzak azaltzea, bai eta horien azterketa praktikoa ere.
- Pizgarri fiskala aplikatzeko beharrezkoak diren izapide formalak berrikustea.
- Kenkari fiskala transferituz finantzaketa lortzeko aukera (64 bis).
- Taldean ebazteko kasu praktikoa.
- SPRIri ondorio fiskaletarako kalifikazioko txosten teknikoak eskatzeko eman beharreko urratsen azalpena.

NOREKIN



AITOR SOLOETA

Euskadiko Arlo
Fiskalaren arduraduna
Gómez-Acebo & Pombo

Espezializatuta dago Foru Zerga Zuzenbidean, eta nazioko eta nazioarteko erakundeei aholkularitza eman die.

Abokatu ekonomista da (Deustuko Unibertsitatean ikasi zuen), eta enpresen aholkularitza juridikoko masterra du. Esparru pribatuan lan egin du 13 urtez (zenbait bulegotan, hala nola Cuatrecasas eta PwC) eta administrazio publikoan 21 urtez. Horietatik 7 urte egon zen Institutio Publikoetako arlo ekonomikoetako arduradun gisa (hala nola Bizkaiko Batzar Nagusiak eta Getxoko Udala), 10 urte finantza ikuskatzaile gisa eta azken 4 urteak Bizkaia Foru Ogasunaren zuzendari nagusi gisa. Horrez gain, Bilbao Bizkaia Kutxa finantza-erakundearen Administrazio Kontseiluaren lehendakariordea izan da, banku-fundazio bihurtu aurretik. Halaber, erakunde horretan ere parte hartu du, patronatuaren kide gisa.

Egile eta egilekide gisa parte hartu du aldizkari espezializatueta zenbait argitalpen eta artikulutan.



ZURIÑE MARTINEZ

Arlo Fiskaleko aholkularia
Gómez-Acebo & Pombo

Ekonomian graduatua da Euskal Herriko Unibertsitate Publikoan, EHU. Aholkularitza Fiskaleko Nazioarteko masterra egin zuen ISDE Zuzenbide eta Ekonomia Goi mailako Institutuan. Zerga eta zerga zuzenbidean espezializatuta dago. Aurretik lan egin du arlo fiskalean, besteak beste, Euskaltax eta Deloitte bulegoetan, eta behin eta berriz parte hartu du familia-enpresei eta multinazionalen aholkularitza fiskala ematen.

Era berean, esperientzia sendoa du berregituraketa-eragiketetan, egiaztapen- eta ikerketa-jarduketetan eta prozedura ekonomiko-administratiboetan aholkularitzan.

Bere profilak zorroztasun teknikoa, xehetasunetik arreta eta analisirako gaitasuna uztartzen ditu, ingurune konplexu eta arautuetan zerga-aholkularitza integrala emateko funtsezko ezaugarriak.



CRISTINA UGARTE DEL VALLE

Berrikuntzako teknikaria
SPRIko Teknologia,
Berrikuntza eta
Jasangarritasun Saila

Elikagaien Zientzia eta Teknologian lizentziaduna da (EHU), eta *Project Management Professional* (PMP) ziurtagiria lortu zuen 2017an.

Bere ibilbide profesionala berrikuntzaren eta proiektuen kudeaketaren esparruan oinarritzen da, non 13 urtez eta Innobasqueko taldeko kide gisa, funtsezko funtzioak bete zituen euskal I+G+Ba Europar nazioartekotzeko koordinazioan eta laguntza teknikoan. Lankidetzak sareak kudeatu ditu, I+G+Bari laguntzeko Europako Esparru Programarako proposamenak prestatzen parte hartu du eta Eusko Jaurlaritzari laguntza eman dio I+G+Bari laguntzeko finantziazio-programak nazioartekotzeko.

Gaur egun, laguntza teknikoa eskaintzen du berrikuntzari laguntzeko tresnak diseinatze, inplementatzeko, kudeatzeko eta ebaluatze, eta nazioarteko ikuspegia du arlo horretan. Aurretik, Erresuma Batuko Unilever, Eroski eta Percy Dalton enpresetan, besteak beste, esperientzia izan zuen kalitate kontrolean eta produktu berrien garapenean.

NOREKIN



IÑAKI GANZARAIN

Innobasque,
Berrikuntzaren Euskal
Agentziako Berrikuntza
Politiken unitateko
koordinatzaile teknikoa

Enpresen Administrazioan eta Zuzendaritzan lizentziatua, eta Kudeaketako Informatikako ingeniari teknikoa da Deustuko Unibertsitatean. 4 urte egon ostean Minsaiteko aholkulari lanetan, 2016an Innobasque, Berrikuntzaren Euskal Agentzian lanean hasi zen. Gaur egun, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Politiken Unitatearen koordinatzaile teknikoa da.

Bere jardueren artean, honako hauek nabarmentzen dira: Eusko Jaurlaritzarekin batera lan egitea Lehendakaritzak kudeatutako 2030 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana diseinatzen eta gauzatzen; aholkularitza ematea zenbait saili eta foru-aldundiri I+Gko zenbait tresna diseinatzen eta garatzen; eta analisiak egitea Euskadiko berrikuntzaren egoerari buruz. Zehazki, BFArekin batera lan egin du sozietateen gaineko zergaren I+Gko eta berrikuntza teknologikoko baldintza berriak ezartzen.



JOSEBA URIAGUERECÁ

Innobasque, Berrikuntzaren
Euskal Agentziako
Berrikuntza Politiken
unitateko proiektu
arduraduna

Enpresen Administrazioan eta Zuzendaritzan graduatua da Deustuko Unibertsitatean. 3 urte baino gehiago egon ostean Management Solutions-en aholkulari lanetan, 2019 Innobasque, Berrikuntzaren Euskal Agentzian lanean hasi zen. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Politiken Unitatearen proiektu arduraduna da.

Bere jardueren artean, honako hauek nabarmentzen dira: Eusko Jaurlaritzarekin batera lan egitea Lehendakaritzak kudeatutako 2030 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren jarraipenean eta ebaluazioan; I+G, berrikuntza eta digitalizaziorako laguntza publikoen jarraipena eta ezagutza; eta analisiak egitea Euskadiko berrikuntzaren egoerari buruz. Zehazki, BFArekin batera lan egin du sozietateen gaineko zergaren I+Gko eta berrikuntza teknologikoko baldintza berriak ezartzen.

